



# Sopela

## gurea

U R T A R R I L A | 2 0 2 4



OSOPELOTARI®:  
EUSKAL PILOTARI  
BIRA BERRITZAILE BAT  
EMATEKO EGUTEGIA

# OSOPILOTARI®

### DESARROLLO URBANISTICO DE ABARO EN PELIGRO

Aprobada la moción que pide a la Asociación Vecinal de Sopela la retirada del Contencioso Administrativo que podría bloquear el desarrollo urbanístico de Abaro.

3. orrialdea

### ELKARRIZKETA

Leixuri Urrutia: "Guztiok batera euskararen aldeko ekimenean parte hartzeak erakusten du, badagoela Sopela euskaldun eta euskaltzaleago baten alde egiteko indarra"

5. orrialdea

### ELKARRIZKETA

Nerea Azkona: "Las pérdidas gestacionales, perinatales e incluso neonatales están silenciadas, tabuizadas y, en ocasiones, estigmatizadas tanto por el mundo sanitario como por la sociedad"

10. orrialdea



# PREGUNTA DEL MES

El 22 y 23 de enero se celebrarán unas jornadas en Kurtzio sobre el duelo perinatal. ¿Cómo se llama la persona que presentará su libro "Madre en duelo" dentro de estas jornadas?

Entre los e-mails que nos lleguen a [komunikazioa@sopela.eus](mailto:komunikazioa@sopela.eus) con la respuesta acertada sortearemos un bono de 20 euros para comprar fruta, cortesía de nuestro comercio del mes **FRUTERIA ZAPORE NATURALA**.

¡Anímate y participa! La persona ganadora de la pregunta del mes anterior: **VIRGINIA LIBANO**.

## Ludotekako urtarileko programazioa

**8,9,10,11,12,15,16,17,18,22,23,24,25,29,30,31:** Koloretako munstroa  
**13:** Ipuin kontalari eta liburuteka  
**20:** Mozorro prestaketa  
**26:** Zinea "Home"  
**27:** Agurtza Museoa

Abenduaren 23tik urtarrilaren 7ra Ludoteka itxita!

## Gaztelekuko urtarileko programazioa

**1:** Itxita  
**2:** Gabonetako filma  
**3-4:** FIFA Txapelketa  
**5:** Marrazketa Eguna  
**6:** Itxita  
**7:** Txapelketak opariekkin  
**12:** Bingo  
**13:** Irakurketa Eguna  
**14,19:** Jolas librea  
**20:** Ping Pong Txapelketa  
**21:** Karta Jokoak  
**26:** Dardo Txapelketa  
**27:** Puzzeleen Eguna  
**28:** Hasi Dantzatzen

## TELEFONO INTERESGARRIAK

### Teléfonos de interés

**UDALA** Ayuntamiento  
94 406 55 00

**UDALTZAINGOA** Policía Municipal  
94 406 55 11

**KURTZIO KULTUR ETXEA**  
94 406 55 05

**UDAL LIBURUTEGIA** Biblioteca Municipal  
94 406 55 08

**KIROLDEGIA - IGERILEKUAK**  
Polideportivo - Piscinas  
94 406 55 20

**UDAL PILOTALEKUA** Frontón Municipal  
94 676 44 04

**GIZARTE ZERBITZUAK**  
Servicios Sociales  
94 676 37 83

**UDAL EUSKALTEGIA** Euskaltegi Municipal  
94 676 31 54

**KZ GUNEA SOPELA**  
94 403 34 06  
[tutor.sopela@kzgunea.net](mailto:tutor.sopela@kzgunea.net)

**BAKE EPAITEGIA** Juzgado de Paz  
94 676 33 55

**TAXI GELTOKIA** Parada de Taxi  
94 676 10 03

**TURISMO BULEGOA** Oficina de Turismo  
94 406 55 19

**CRUZ ROJA** 94 410 10 10

**LARRIALDIAK** Emergencias **112**

**OSASUN ZENTROA** Centro de Salud  
94 676 41 19

**EUSKARA ZERBITZUA**  
94 657 92 79

[www.sopelaneuskarazatseginez.com](http://www.sopelaneuskarazatseginez.com)  
**HIZKUNTZ ESKUBIDEEN URRAKETAK SALATZEKO**  
**902 19 43 32 (Behatokia)**

**GENERO - BIOLENTZIA KASUETAN LAGUNTZEKO TELEFONOA**  
Teléfono de Asistencia sobre Violencia de Género **016**

**BERDINTASUN SAILA**  
94 657 92 82

**EUSKO JAURLARITZA**  
900 840 111

## La Oficina de Turismo lanza una nueva cuenta de Instagram

Con el objetivo de acercar los encantos, la diversidad y la riqueza de Sopela a un público global, la Oficina de Turismo ha relanzado su cuenta oficial de Instagram. Así, la cuenta @Sopelaturismoa se convertirá en un escaparate virtual de nuestras playas de ensueño, senderos naturales, riqueza cultural y una gran variedad de experiencias que hacen de Sopela un destino único y apasionante para visitantes de todas partes del mundo.

Con publicaciones regulares, historias cautivadoras y detalles exclusivos, la Oficina de Turismo busca conectar de manera más directa con aquell@s que deseen descubrir y explorar los encantos ocultos y los destinos más emblemáticos de Sopela.

A través de esta plataforma, se compartirán consejos útiles, recomendaciones de viaje, eventos próximos, imágenes cautivadoras y contenido interactivo para involucrar a la comunidad local y a viajar@s curiosos por igual.

¡No te pierdas la oportunidad de explorar Sopela desde tu pantalla! Únete a nosotr@s en Instagram y descubre lo mejor de nuestro destino costero a través de un universo visual lleno de sorpresas y experiencias memorables.

¡Te esperamos para compartir juntos la magia de nuestro paraíso costero!



**TAMAINA HANDIKO TRASTEEN BILKETA**  
**RECOGIDA DE VOLUMINOSOS**


**T. 900 720 631**

**Wasap: 638 54 32 95**

**[trastezaharrak@enviser.net](mailto:trastezaharrak@enviser.net)**

**Noiz atera zure hondakinak?**  
**DOMEKA GAUEAN**  
**Non utzi?** Zabor edukiontzien ondoan, inoiz ez barruan.

**¿Cuándo sacar tus residuos?**  
**EL DOMINGO POR LA NOCHE**  
**¿Dónde depositarlos?** Cerca de un contenedor de basura, nunca dentro.



# Aprobada la moción que pide a la Asociación Vecinal de Sopela la retirada del Contencioso Administrativo que podría bloquear el desarrollo urbanístico de Abaro



En la última sesión plenaria del año celebrada el pasado 28 de diciembre de 2023, el Ayuntamiento de Sopela aprobó una moción conjunta presentada por los grupos políticos EHBildu, PNV, PSE y Elkarrekin Sopela. La moción insta a la retirada del Recurso Contencioso Administrativo presentado por la Asociación Vecinal de Sopela, presidida por Dña. M<sup>a</sup> Luisa Gadea Nebreda, actual concejala de Alternativa Vecinal de Sopela, que podría bloquear el desarrollo urbanístico de Abaro.

El rumbo del Plan Parcial de Abaro experimentó un cambio significativo con la presentación de este recurso contencioso administrativo por parte de la Asociación Vecinal de Sopela el pasado mes de noviembre. Esta acción generó incertidumbre legal, llevando a los propietarios de las parcelas destinadas a la ampliación del Instituto de Iberre a oponerse a la ocupación anticipada prevista por el Ayuntamiento de Sopela en las semanas posteriores. Dicha ocupación tenía como objetivo ceder definitivamente estas parcelas de Abaro al Gobierno Vasco.

La oposición por parte de los propietarios a la ocupación anticipada retrasa todo el proceso de cesión, lo que en la práctica podría llegar a bloquear la ampliación del instituto de Iberre. Las labores de desbroce y vallado de las parcelas de Abaro, necesarias para llevar a cabo la ocupación anticipada, se habían programado para la segunda quincena de diciembre; sin embargo, la negativa de los propietarios postergó este paso tan importante para Sopela.

Ante la gravedad de la situación, EHBildu, PNV, PSE y Elkarrekin Sopela, mediante una moción conjunta, han pedido a la Asociación Vecinal de Sopela la retirada del contencioso administrativo: ***“La mera presentación de este recurso puede suponer de facto la paralización, por lo menos por dos o tres años, del desarrollo de esta zona, que implica, en lo referente a Abaro, la paralización de la ampliación del Instituto de enseñanzas medias Iberre de Sopela, la construcción de 490 viviendas de protección pública y la continuidad del cinturón verde de Sopela en la vega del Gobela”.***

**MOCIÓN CONJUNTA: “EHBildu, PNV, PSE y Elkarrekin Sopela piden a la Asociación Vecinal de Sopela la retirada del Contencioso Administrativo.**

Los grupos políticos de Sopela EHBildu, PNV, PSE y Elkarrekin Sopela, que conformamos un total de 16 concejalas y concejales sobre un total de 17 en el pleno de nuestro municipio, mostramos nuestra incompreensión y rechazo al Recurso Contencioso Administrativo presentado por la Asociación Vecinal de Sopela cuya presidencia es asumida por Dña. M<sup>a</sup> Luisa Gadea Nebreda, actual concejala de Alternativa Vecinal de Sopela.

**La mera presentación de este recurso puede suponer de facto la paralización, por lo menos por dos o tres años, del desarrollo de esta zona, que implica, en lo referente a Abaro, la paralización de la ampliación del Instituto de enseñanzas medias Iberre de Sopela, la construcción de 490 viviendas de protección pública y la continuidad**

**del cinturón verde de Sopela en la vega del Gobela y en el humedal de Urko.**

Mostramos nuestra incompreensión porque en el programa electoral para las elecciones municipales de Alternativa Vecinal de Sopela se decía textualmente “apoyar por todos los medios la ampliación de Zipiriñe e Iberre” y “favorecer la construcción de viviendas de VPO”, algo que compartimos también el resto de formaciones políticas y otros agentes sociales de Sopela. Mostramos también nuestro rechazo porque los perjudicados por esta paralización son todos y todas las alumnas que cursan sus estudios en la educación pública de Sopela en unos edificios que se han quedado pequeños para responder a sus necesidades y que además han de finalizar sus estudios de Bachiller fuera del municipio, todas las personas que podían optar a una vivienda de protección pública ya que en Abaro estaban previstas la construcción de 490 y todos los y las vecinas que deseamos una mejora de nuestro entorno medioambiental. No llegamos a comprender quien se puede sentir beneficiado con este contencioso administrativo.

Aceptando la total legitimidad para presentar dicho recurso, el pleno del Ayuntamiento de Sopela ACUERDA lo siguiente:

- 1.- Solicitar a la Presidenta de la Asociación Vecinal de Sopela y actual concejala de Alternativa Vecinal de Sopela, Dña. María Luisa Gadea Nebreda, que retire el recurso contencioso administrativo contra el Plan Parcial de Abaro.
- 2.- Notificar este acuerdo a Dña. María Luisa Gadea Nebreda en su condición de Presidenta de la Asociación Vecinal de Sopela y actual concejala de Alternativa Vecinal de Sopela.
- 3.- Recordar a todos y todas las vecinas de Sopela que los pasos dados por el ayuntamiento cuentan con una mayoría clara (16 votos a favor y 1 en contra), cuentan con la aceptación del 100% de los propietarios de los terrenos de Abaro y se basan en un acuerdo firmado con la consejería de Vivienda del Gobierno Vasco.”

# Udalak kirol instalazioak erabiltzeagatiko tarifak eguneratzea onartu du

2023ko azaroaren 29an ospatutako ohiko osoko bilkuran, Sopelako Udalak kiroldegian dauden kirol-instalazioak erabiltzeagatiko tarifen berrikuspena eta eguneraketa onartu zuen. Zehazki, kirol-instalazioak erabiltzeagatiko tarifak % 5 eguneratuko dira eta Txikigunearenak, berriz, % 2.

2024rako tarifen eguneratzea 2021eko maiatzean sinatu zuen Sopelako Udalak BPX SPORT enpresarekin, aurreko legealdian, kirol-instalazioetarako kudeaketa-zerbitzuaren esleipena formalizatu zenean, eta, beraz, Sopelako

Udalak legez bete behar du kontratua enpresa esleipendunarekin lege-arazorik ez izateko.

Gobernu Taldea "jakitun" da Sopelako kiroldegiko zerbitzuen inguruan dagoen arazoaz, eta horri buruzko hainbat gai aztertzen ari direla adierazi dute, hala nola enpresa esleipendunak kontratuan hitzartutako baldintzen betetze-maila, instalazioen benetako egoera, mantentze-lanetan inbertitzeko eta hobetzeko beharrak eta jarraitu beharreko kirol-zerbitzuen eredua.



## Sopelango dirulaguntzak ebatzi dira

Lehiakortasuna hobetu duten negozioiei ekin berri dieten pertsonen edo Sopelan erroldatutako langileak kontratatu dituzten enpresei zuzenduriko Sopelan diru-laguntzen programa dagoeneko ebatzi da, baina gaur egun errekurtsioak aurkezteko epea irekita dago.

Hiru lerroek 48 eskaera jaso dituzte guztira. Lehenengo lerroan, enpresa-proiektu berriak sortzeko, 15 eskabide aurkeztu dira eta horietatik 12 onartu dira. Diru-laguntza 25.283 eurokoa izan da. Bigarren ildoak, mikroenpresen eta profesional autonomoen lehiakortasuna eta berrikuntza hobetzeko, 23 eskaera izan ditu eta 16 onartu dira. Hori 19.924 euro dagozkie. Azkenik, Sopelako langabetuak kontratatzekeo lerrora 4.800 euro bideratu dira eta 6 eskaera izanik (4 onartu dira).

Gogoratu behar da, Udalak ekintzaileei laguntza handiagoa emateko egin duen apustuan eta aurreko edizioan 1. lerroetik jasotako eskaera kopuru handia kontuan hartuta, partida horri aurrekontu handiagoa ematea erabaki zuela. Horrela, 15.000 eurotik 25.000 eurora pasatu da. Bigarrenak 20.000 euro izan ditu eta 3ak 10.000 euro.

## Éxito de la campaña Bono Sopela

La campaña Bono Sopela 2023, que en la última edición aunó Bono Denda y Gastro Bonos, ha finalizado con éxito. De los 47 comercios que ofrecieron 9.118 bonos, se canjearon 8.628; los 13 locales de hostelería agotaron casi todos sus 3.367 Gastro bonos (3.364). La inversión en Bono Denda superó los 45.000 euros anteriores, llegando a 45.590

euros, y la de Gastro Bonos llegó a 16.875 euros. Esta iniciativa, puesta en marcha el Departamento de Desarrollo Local, tiene como objetivo apoyar al comercio local y la hostelería, de manera que tanto sopeloztarras como visitantes apuesten por el consumo en la localidad, obteniendo además un provechoso beneficio económico.

A continuación especificamos los cauces para concertar una cita presencial con las y los portavoces de los partidos políticos de EAJ-PNV, PSE-EE y AVS-SAE.

### EAJ-PNV



La forma de contactar es a través del mail de cada concejal/a o a través del registro de entrada del Ayuntamiento.

- ☎ Miércoles por la mañana: **Josu Landaluze**  
[j.landaluze@sopela.eus](mailto:j.landaluze@sopela.eus)
- ☎ Martes por la tarde: **Amaia Guenetxea**  
[amaia.guenetxea@sopela.eus](mailto:amaia.guenetxea@sopela.eus)
- ☎ Viernes por la mañana: **Gotzon Garai**  
[gotzon.garai@sopela.eus](mailto:gotzon.garai@sopela.eus) y **M<sup>a</sup> Angeles Ibarra mangeles.ibarra@sopela.eus**

También ponemos a disposición de los y las vecinas un número de teléfono para que a través del whatsapp nos puedan mostrar sus quejas o sugerencias. El número es el 722 275 523.

### PSE-EE



**Maria Teresa Fernández:** el cauce para la concertación de citas sería el correo electrónico del ayuntamiento:

[mariateresa.fernandez@sopela.eus](mailto:mariateresa.fernandez@sopela.eus)

### AVS-SAE



**Maria Luisa Gadea:** Todos los lunes a partir de las 12:30 y los viernes toda la mañana, pero también es posible quedar otro día de la semana, concertando una cita por e-mail:

[marialuisa.gadea@sopela.eus](mailto:marialuisa.gadea@sopela.eus).

# Leixuri Urrutia : “Guztiok batera euskararen aldeko ekimenean parte hartzeak erakusten du, badagoela Sopela euskaldun eta euskaltzaleago baten alde egiteko indarra”

Sopelako Kuarillak taldeak hamar urte daramatza jada herria girotzen eta gazte sopoloztarrei aisialdi alternatibo bat eskaintzen, auzolanaren eta parte-hartzearen kultura sustatuz. Taldeak euskararen biziberritzea ere badu abiapuntutzat. Horrela, joan den abenduaren 3an ospatu zen Euskararen Nazioarteko Egunaren harira, euskararen aldeko argazki herrikoi bat egiteko deia egin zuen. Ekimen ederra eta originala. Taldeko kide den Leixuri Urrutiarekin solasalditxo bat izan dugu ekimena bera eta taldearen ibilbidea errepasatuz.

**Joan den abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Eguna zela eta, ekimen original bat egin zenuten: dei bat egin zenuten argazki herrikoi bat egiteko. Nondik sortu zen ideia eta zer aldarrikatu nahi zenuten?**

Sopelako Kuadrillak sarritan biltzen gara kuadrillen arteko ekimenak prestatzeko. Bilera horietako batean erabaki genuen bazela garaia batetik, euskararen alde dugun postura argi eta garbi aurkezteko, eta, bestetik, gure hizkuntzaren aurkako oldarraldiak gurean duen eraginaren inguruko hausnarketa bat egiteko. Garai artan, azaroaren 4ko euskararen aldeko manifestazioaren atarian geunden, eta beraz, lehenik, manifestaziora joateko deia egin genuen. Gero, herrian bertan ere zerbait antolatzea erabaki genuen. Gure helburua zen Euskararen Eguna, orain arte jai-giroan egin duguna, aldarrikapen egun bihurtzea. Beraz, esan genezake momentuak berak eskatu zigula ekimena antolatzea.

**Ekimena aurrera atera zen, eguraldi txarra eta euria gorabehera. Pozik geratu zineten?**

Asko eskertzen dugu Sopelako eragile sozial zein politikoez erakutsi zuten prestutasuna. Hamaika izan ginen bildu ginen taldeak eta hamaika dira talde bakoitzaren zeregin eta helburuak. Guztiok batera euskararen aldeko ekimenean parte hartzeak erakusten du, badagoela Sopela euskaldun eta euskaltzaleago baten alde egiteko indarra.

**Ze esanahi du zuentzat ekimenak?**

Ekimena sinbolikoa ez ezik Sopelako Kuadrillen postura sendotzeko ere baliagarria izan zela esango genuke. Oso talde zabala eta anitza gara, eta denboraren poderioz, aspaldian belaunaldi helduenek egindako lanari esker, herriko erreferentziatzako eragile bilakatu gara. Horrenbestez, badakigu elkarte gisa erantzukizun bat daukagula herriaren euskalduntze prozesuan, eta horretan datza ekimenaren zergatia. Sinbolismotik haratago, euskararen aldeko jarrera irmo, serio eta arduratsua erakusteko bide bat da argazki herrikoiak.

**Zein da euskararen egoera Sopelan? Zein da zuen ustez normalizazioaren bidea?**

Sopelako euskararen egoera, tamalez, ez da guk nahi genukeena. Errealitatea da jendeak, orokorrean, kalean zein komertzioetan, batez

ere, gaztelera erabiltzen duela. Hala ere, bide onetik goazela uste dugu guk. Dinamika aldaketa bat ikusi dugu azken urteotan herrian: gaur egungo guraso gazte gehienek, euren seme alabei euskaraz egiten diete, eta horrek eragin dezake etorkizuneko Sopela euskaldunagoa izatea. Atrebitzen gara esatera kaleetan ere geroz eta euskara gehiago entzuten dela.

Kuadrillen Koordinadorak betidanik nahi izan du kuadrillen arteko dinamika linguistikoa euskaldundu, eta orain dela zenbait urte egindako esfortzuaren fruituak biltzen ari gara orain. Kuadrillen artean paradigma bat ematen da. Izan ere, kuadrilla baten barruan kideen artean gehien erabiltzen den hizkuntza gaztelera bada ere, kuadrillen arteko harremak euskaraz dira askotan, bilera zein jai- giroan. Zalantzarik gabe, egiteko asko dugun arren, bilakaera positibo argia sumatzen dugu Sopelako euskararen erabileran.

**Nolako jarduerak egiten dituzue euskararekin lotuta?**

Euskara hizkuntza da, komunikazio tresna, eta beraz, euskarari lotutako ekintzak egitea baino garrantzitsuagoa iruditzen zaigu euskara gure talde dinamikaren hizkuntza izatea. Horregatik, Sopelako kuadrillen elkartetik garatzen ditugun jarduerak euskara hutsean egiten saiatzen gara, horrek kuadrillengan eragina izan dezakeelakoan.

Apaltasunetik, gure jardunarekin gazteen artean euskara sustatzen saiatzen gara. Azken batean, gazteei euskara ikasteko eta erabiltzeko beharra sortzen ari gatzatze, jardueretan parte hartzeko erabili behar dutelako. Askotan jendeak ez du euskara erabiltzen, “ez duelako ezertarako balio” leporatuta, euskarari ez baitio balio instrumentalik ikusten. Kuadrillen arteko ekimenean euskara hutsean egitean euskarari sarritan kentzen zaion balio hori ematen saiatzen gara, eta horrela gazteek ikusten dute “zerbaiterako balio duela”, eta motibazio bat dute hori erabiltzeko. Azken finean, gazteek euskararekiko jarrera positiboa izatea dugu helburu, euskarari balio instrumentala emateaz gain balio emozionalaz ere hornituz. Gazteek euskararekiko jarrera positiboa izan dezatela nahi dugu, eremu akademikotik kanpo eremu ludikoan ere euskarak tokia duela azpimarratuz.



**Zer esan nahi du euskarak Sopelako Kuadrillentzat?**

Arestian aipatu bezala, euskara hizkuntza da, komunikazio tresna. Baina euskara hori baino askoz gehiago ere bada: gure herriaren identitatearen parte da, hainbat euskal kantek diotenari jarraiki, euskara da euskal historiarekin eta nortasunarekin dugun lotura.

Hamaika dira euskararen normalizazioa zaildu duten faktoreak. Besteak beste, politika, erabaki eta eraso historikoen ondorioz gutxiarazitako hizkuntza da. Tamalez, aurrekoan batu gintuen ekimenaren zergatiak plasmitzen duen bezala, orain berriro ari gara joera ezkor hori ikusten. Europako hizkuntza zaharrenetakoa urte guzti hauetan zehar eta jasandako eraso guztien aurrean ere bizirik darrai. Horregatik guztiagatik da euskara herri gisa arro sentitzeko arrazoiak.

Baina, guzti horren aurretik, euskara egunerokotasunean erabiltzen dugunean, herri gisa oso mezu argia bidaltzen dugu mundura: hemen bizirik jarraitzen duen herri bat dago!

**Nola jaio zen Sopelako Kuadrilak?**

Sopelako Kuadrillak herri-mugimendutik jaio zen duela 10 urte inguru. Sopelan Gaztetxea zegoenean aisialdiaren esparruan asanblada bat sortzea erabaki zen, eta hori izan zen, hain zuzen ere, gaur egun Sopelako Kuadrillen Elkartea modura ulertzen duguna. Gure helburua da, batez ere, gazte sopoloztarrari aisialdi alternatibo bat eskaintzea, auzolanaren eta parte-hartzearen kultura sustatuz. Gainera, elkartean helburua herria girotzea da, herria biziberritzea. Sopela herri bizia izatea nahi dugu, eta horregatik hilabetero jarduerak bat egiten dugu. Azken buruan, gure helburua da herri-kohesioa sortzea, “herria egitea”, horrek etorkizunari begira izango dituen ondorioekiko kontziente izanda.

**Zein da elkartean dinamika? Zer motatako jarduerak egiten dituzue?**

Dinamika parte-hartzaile bat daukagu. Ikasturte hasieran urteko egutegi bat planteatzen dugu, hilabetero garatuko ditugun jarduerak zehaztuz. Hortik aurrera, lan-taldeak sortzen dira eta hilabetero bilerak egiten ditugu, egingo diren jarduerak antolatzeko eta egindakoak baloratzeko. Edonork parte har dezake gure bileretan baita gure jardueretan ere. Talde irekia gara eta jendearen aktibazioa bilatzen dugu.

# Uribe Kostak bere hondakinak sailkatu ditu prebentzioa eta kudeaketa hobetzeko asmoz

Azaroaren 18tik 26ra ospatu zen Hondakinak prebenitzeko Europako Astearen baitan, Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak, eskualdeko hondakinaren karakterizazio lanak egin zituen, hau da, hondakina osatzen duten zatikiak bereiztean eta sailkatzearan datzan ikerketa.

Errefusaren frakzioa karakterizatzea eta bertan aurkitzen den "inpropio" kopurua jakitea ezinbestekoa da eskualdeko herrietan biltzen diren hondakinaren ezaugarriak ezagutzeko. Horrela, hondakinaren prebentzioa eta kudeaketa hobetzeko aukerak bideratu daitezke,

egungo hondakinaren legeak ezartzen dituen helburuak erdiesteko.

Egindako zabor-karakterizazioen emaitzek argi islatzen dute oraindik Uribe Kostako herritar gehienek ez dutela etxeetako hondakin organikoak zuzen bereizten. Gainera, aipatzekoa da herrietako edukiontzietan, "Errefusari", agertzen den inausketako hondar begetalen kantitate handia. Horrez gain, datuen arabera oraindik jendeak ez du behar bezala ontzi arinak eta ohialak/arropa zuzen bereizten, tamalez, nabarmentzeko baita karakterizazioetan agertu den haien kantitatea.



Hala, lorategi eta inausketak hondarrak (% 17,13), materia organikoa (%16,37) eta zelulosak (% 15,66) dira Uribe Kostako hondakinaren ia % 50. Ontzi arinak (% 9,95), ehunak (% 9,67) eta material sailkaezina (% 9,73) dira beste hiru hondakin multzo nagusiak, baita osasun-hondarrak ere (% 3,39).

## LABEMPRENDE tailerrak urtarrilaren 17an eta 18an

Urtarrilaren 17an eta 18an "La Caixa" Fundazioak antolatutako LABEMPRENDE gune ibiltariak Sopela bisitatuko du eta hartan parte hartzea gonbidatu nahi zaitugu zure ikastetxeko ikasleekin batera.

"La Caixa" Fundazioak, EduCaixa programaren bidez, hezkuntza arloko baliabideak, jarduerak eta programak eskaintzen dizkio hezkuntza komunitateari gazteenen gaitasun garapena sustatzeko; haur, lehen eta bigarren hezkuntzako nahiz batxilergoko eta erdi mailako heziketa zikloetako ikasle eta irakasleei, hain zuzen ere.

LABEMPRENDE ekintzailatza laborategi ibiltaria da (autobusa). Gune elkarreragile eta multimedia bat biltzen du bere baitan, ikasleek ekintzailatzaz gogoeta egin eta hartan sakontzeko aukera izan dezaten, ekintzailatza arloko jardueren, lekukotasunen eta proiektuen bidez. LABEMPRENDE honako talde hauetara dago: lehen hezkuntzako 6. mailako ikasleei, bigarren hezkuntzako, batxilergoko eta heziketa zikloetako maila guztiei, bai eta familiei ere.

Erraztaile batek ibilbidea gidatuko du hainbat jardura elkarreragile

dituen gune multimedia batean zehar, ekintzailatza-prozesua ezagutzeko eta ekintzailatzarako behar diren ezaugarriak eta balioak ikasteko. Ibilbideak bost esparru zeharkatuko ditu: Ekintzaileak gara, Begiratu, Pentsatu, Egin eta Hasi. Doako tailerrek Udaletxeko Plazan egiten dira eta 90 minutuko iraupena dute ikastalde bakoitzeko (24 ikasle inguru).

Bisitak adosteko eta datak erreserbatzeko, bai edo edozein kontsulta egitekerere, deitu 900 101 493 doako telefonora, erreserba egin dezazun edo informazioa jasotzeko. Bestela, bidali e-mail bat [info@labemprende.com](mailto:info@labemprende.com) helbidera.



## Empresarias de Sopela, en el Sarekin Days

Varias mujeres emprendedoras y aspirantes a emprender de Sopela se unieron a las IV jornadas de Emprendimiento Sarekin Days 2023, llevadas a cabo el 26 y 27 de noviembre en la Torre Iberdrola. El evento, organizado por el Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad de la Diputación Foral de Bizkaia, contó con la participación destacada de Bego Márquez de Aldalan y Tania Silvestrini, presidenta de Ametsa, la Asociación de Mujeres Emprendedoras, Empresarias y Tractoras de Sopela.

Durante el Networking EnREDate, Bego y Tania presentaron los programas y acciones respaldados por el Ayuntamiento de Sopela para impulsar el emprendimiento. Además, algunas de estas mujeres formaron parte del reciente programa de emprendimiento femenino auspiciado por el Departamento de Sociedad del Ayuntamiento. Con la colaboración de Aldalan, estas emprendedoras se reunieron en las instalaciones de Doctor Landa 3 los lunes y miércoles para desarrollar sus proyectos



# Sopelako eraztun berdearen kontseiluaren jarduerari eta akordioei buruzko 2023ko memoria



Eraztun Berdearen Kontseiluak Sopelako udalerrian lan egiten duten eta gure ingurune naturala hobetzeko interesa duten talde politiko eta elkarte guztiak biltzen ditu. Kontseilua 2022an jarri zen martxan eta Sopelako Eraztun Berdearen mapa onartu eta jendaurrean aurkeztu zuen.

2023an zehar Kontseiluaren 6 bilera burutu dira eta horietan Eraztun Berdea garatzeko hainbat jarduera-proposamen onartu dira:

- ➔ **Urkoko ibarra lehengoratzea,** Gobela eta Lemotza ibaien artean, Gatzarriñe kaletik Urkoko egungo putzuetaraino. Kontseiluak onartutako ideiekin, SOIL arkitekturak aurreproiektu bat idatzi zuen, eta URA Uraren Euskal Agentzia egokitzen ari da une honetan. Aurreproiektu hori gauzatzen ere parte hartuko duela aurreikusten da.
- ➔ **Gobela ibaiaren ingurune ingurumena leheneratzea** eta paisaia egokitzea Abaro parean, Eraztun Berdeari jarraipena emanez. Eraztun Berdean, biodibertsitatea handitzearekin batera, erabilera publikoarekin bateragarri egingo da.
- ➔ **Munarri aldea, Larrondo, Fraide-mendi:** Beste ideia batzuen artean, jabeekin gestioak hastea proposatu da, Udalak lursailak eros ditzan eta paisaia eta natura lehenera daitezen sustatzeko.
- ➔ **Iturralde-Marizuri eremua:** Ahalik eta naturalizatuaren mantendu nahi dira hegazti kalteberak dauden eremu horiek eta Meñakoz auzorako bide publikoetatik igarotzea gaitu.
- ➔ **Itsasalde-Ingesta – Landaluze eremua:** Inpaktu txikiko jarduerak bateragarri egitea proposatzen da, hala nola, paisaia-kontenplazioa edo flyscharen balioa nabarmentzea eta eremuko habitaten kontserbazioa eta leheneratzea bideratzea, oso ahulak baitira. Txilardia berreskuratzea eta landare inbaditzaileak kentzea bultzatzea.



## SANTA AGEDA 2024

Udalak otsailaren 4an ospatuko den Santa Ageda egunean parte hartzeko deia egiten die herriko talde, elkarte eta kolektibo guztiei. Horrela, egun horretan, ondoren zehazten diren baldintzak betetzen dituzten parte-hartzaileei dieta bat ordainduko zaie: 20 pertsonatik gorako taldeak izatea eta baserriarren janzkera tradizionala erabiltzea eta kantuak abestea funtsezko lau lekutan: Udaltxeko plazan, Jauregizar plazan, Urgitxieta plazan eta Loiola Ander Deuna kalean.

Parte hartzea baieztatzeko eta ibilbide osoa frogatzeko, taldearen argazki bana bidaltzeko eskatuko da aipatutako puntu bakoitzean eta emanaldiaren bideo bat aipatutako lekue-tako batean 688 673 190 zenbakira edo posta elektronikoz [info@sopela.eus](mailto:info@sopela.eus) helbidera, "Agate Deuna 2024" idatziz eta taldearen izena adieraziz. Izena emateko epea urtarilaren

22tik otsailaren 1era arte egongo da zabalik. Informazio gehiago [www.sopela.eus](http://www.sopela.eus).



## ¡Carnaval 2024! Convocatoria Abierta para el Concurso de Disfraces

El Ayuntamiento de Sopela ha lanzado la convocatoria para el esperado Concurso de Disfraces 2024, una oportunidad para llenar las calles de alegría y creatividad. La actividad se celebrará el domingo 11 de febrero de 2024, y habrá una única categoría: la de grupo, que deberá estar conformado por un mínimo un mínimo de 3 personas.

La inscripción deberá realizarse entre el 29 de enero al 8 de febrero, enviando un email a [info@sopela.eus](mailto:info@sopela.eus) con el asunto 'Mozorro lehiaketa' o en Kurtzio Kultur Etxea en los horarios de apertura del centro, hasta las 20:00 horas del último día de plazo indicando el número exacto de participantes y adjuntando la hoja de inscripción. Será obligatorio la presencia y hacer el recorrido completo del desfile el día 11 de febrero, así como cumplir con las normas de la organización. Encontrarás las bases completas en la web municipal [www.sopela.eus](http://www.sopela.eus).

# Elkarrizketa

**Juan Gorostiaga: "Aniztasuna nabarmendu nahi izan dugu, edonor senti daiteke OSOPELOTARI®".**

Sopelako Kurene Pilota Elkarteak OSOPELOTARI® aurkeztu du, Sopelako Udalarekin elkarlanean euskal pilotaren tradizioari bira moderno bat emateko helburuarekin egindako egutegi berritzailea. Ikuspegi fresko eta dinamikoarekin, egutegiak egungo eta etorkizuneko belaunaldien inspirazio izan nahi du, egungo ikuspegitik pilotan dagoen indarra eta heterogeneotasuna ikusaraziz. Juan Gorostiaga klubeko kide eta proiektuaren egileetako batek egutegi honen nondik norakoak azaldu dizkigu.



## **Nondik dator hain egutegi berezia garatzeko ideia?**

Idea Mexikon pilotari gisa egin nuen bidaiatik sortu zen. Mexikon pilotak duen arrakasta eta euskaldunen ondorengoek zentzu horretan duten indarra eta eragina bizitzeko aukera izan nuen. Pilotaz eta gizarteak pilotaren inguruan duen ideiaz hausnartu nuen. Nolabait, konturatu nintzen izaera arkaiko samarra duela oraindik eta gizartearen begietara askotan tradizionaltasunari gehiegi lotuta dagoela. Hausnarketa horretatik abiatuta, esan genuen: Eta zergatik ez erakutsi pilota ikuspegi modernoago eta gaurkoago batetik?

Egutegia oso obra artistiko eta bisuala da. Atal bisualena nabarmendu nahi izan dugu, irudi bakoitzak hausnarketara bultzatzen dezan eta, nolabait, jendeak pilotariaren inguruan duen aurreiritzia hauts dezan. Aniztasuna nabarmendu nahi izan dugu: edonor senti daiteke OSOPELOTARI®.

## **Zer erronka aurkitu zenituzten proiektuaren kontzeptualizazioan eta garapenean?**

Lehen erronka denbora izan zen eta erlojuaren kontra joatea. Proiektu hau urriaren erdialdean aurkeztu nuen Zuzendaritza Batzordean eta, beraz, bagenekien ez gurela denbora gehiegi. Finantzaketa lortu behar zen, ekoiztu, maketatu, inprimatzera bidali eta banatu. Beraz, lehen handicap-a kronologikoa izan zen. Horri gehitu behar izan zitzaion proiektuaren koordinazioa: castinga, argazki-saioak, kontzeptuaren garapena pilotariekin batera. Pilotari batzuek, hain esplizitua zela ikusi zutenean, ez parte hartzea erabaki zuten. Gero iragaztearen arazoa dago. Batez ere klubean mailan, egiten duzun guztian, ahalik eta espektro zabalena hartzen saiatzen bazara ere, "iragazi" egin behar duzu, eta kasu honetan bereziki, pilotari profil oso espezifikoa erakutsi nahi izan ditugu. Egia esan, OSOPELOTARI® kontzeptuak ez du inor bazterten: pilota munduaren atzean dagoen

aniztasuna erakutsi nahi genuen, baina gorputzak erretratatzeko orduan batzuek «funtzionatzen dute» eta beste batzuek ez. Aniztasun horren barruan, aniztasun hori indartu eta beste zerbait eskaintzen duten profilak bilatzen saiatu gara, pilotariaren profil tradizionaletik haratago.

## **Nola espero duzue egutegi honek jarraitzaile berriak erakartzeko?**

Egutegi hau aitzakia ezin hobea da kluba guztion ahotan jartzeko. Gainera, egutegi hutsetik haratago joan nahi genuen, eta zerbait globalagoa erakutsi. OSOPELOTARI® proiektua ia gizarte eta hezkuntza kanpaina bat bezala ikusten dugu, non azken helburua pilota zerbait erakargarria izan dadin laguntzea den. Uste ez duzun guztia izan daiteke eta da OSOPELOTARI®.

## **Zer balio adierazten ditu egutegi honek?**

OSOPELOTARI®-k ikuspegi berri bat emateko izaera adierazten du. Egutegiak izaera islatzen du eta gauzak argi dituzten pilotariak erakusten ditu; aurkezten ditugun sloganetako bakoitzean kontatzen dena irudi bakoitzarekin bermatzen da. Balio horiek ausardia, inklusioa, aniztasuna, askatasuna eta modernizazioa dira. Tradizionala dena moderno, garaikide eta erakargarri bihurtzen da.

## **Nolako izan zen pilotariak hautatzeko castinga?**

Egutegia kanpaina gisa proiektatuko zela jakin baino lehen, argi geneukan «berezienak» edo ukitu garaikideago hori transmiti zezaketek look-ekin egingo genituela castingak. Hiru saio izan ziren, baina bigarrenean konturatu ginen nolabait «motz» geratzen ari ginela profil jakin batzuei zegokienez, hala nola zerbait "desberdina" erakusten zuten neskak. Klubeko gure neskak genituen, baina «beste era bateko» pilotariak falta ziren. Horregatik, beste klub batzuetara joan

gara buruan genituen profilak lortzeko.

## **Nola eskura daiteke? Zein da banaketa-eta zabalkunde-estrategia?**

Oraingoz, gure hedapena tokikoa izango da. OSOPELOTARI® sarea eta Instagrameko kontu bat sortu ditugu, eduki guztia zabaltzeko. Egutegia batez ere herri mailan eta klubeko bazkide eta pilotariaren artean banatuko da, 1.500 ale baino ez baitira inprimatuko. Egutegi bakoitzeko 10 €-ko dohaintza bidez lortu ahal izango da. Lortutakoa klubeko ikasleentzat eta gainerako pilotarientzat pilota materiala erosteko, pilotariak erakartzeko ekitaldiak antolatzeko, etab. erabiliko da. Ekarpena dohaintza da.

## **Nolako bilakaera izango du OSOPELOTARI®-k etorkizunean?**

Hasteko, zirkulua itxi nahi genuke, hiru saiotan ezin izan ditugulako nahi genituzkeen kolektibo guztiak ikusarazi. Desgaitasun ezberdinak dituzten pilotariak ere erakutsi nahiko genituzke; eurak ere pilotariak dira eta jendeak ez du horren kontzientziarik. Baita beste nazionalitate eta jatorri batzuetako pilotariak ere. Beste gorputz batzuk. Horrela itxiko genuke zirkulua kanpaina mailan.

Honetaz guztiaz gain, eta amesten hasita, OSOPELOTARI® mugak gaintzen ikusten dugu, kalean, buseko markesinetan, euskarri handietan, erakusketetan, museoetan, etab. Moda modernizatu dezakeen marka bezala ikusten dugu kirol mailan eta maila funtzional batean, pilotarientzako pilota item-etan adibidez. OSOPELOTARI®-ren kamisetak jantzen dituen jendea mundu osoan zehar. Pilotako spot baten grabaketa Maieren hondakin batzuetan. Magazin baten argitalpen erregularra. Amets egitea librea da, baina badakigu hori guztia egiteko baliabide gehiago behar ditugula. Guztiaren gakoa da pilota bezalako fenomeno bat erakargarri bihurtzea eta balioa ematea. «Zerbaiten» hasiera izan behar du.



## Munarrikolandaren irteera berria

Munarrikolanda taldeak Aranguren eta Taxoare (Nafarroa) mendietara irteera bat egingo du urtarrilaren 20an, larunbata. Arangurenen hasiko dugu ibilbidea, Irulegi (893 m), Pagadi (898 m) eta Taxoareko gaina (672 m) igo eta

Noainen amaituko dugu ibilbidea.

Gainera, otsailaren 11n, igandea, Lunada aldera joango gara Castro Valnera (1718m) igotzeko, Kantauri-Mediterraneoko uren banalerroan.

## Campeonatos de Tute y Brisca en el Hogar del Jubilado

El Hogar del Jubilado estará lleno de emoción en enero con los esperados Campeonatos de Tute, Brisca y Continental. ¡Más de 100 personas se sumarán a esta fiesta de juegos y destreza! Será un mes vibrante, repleto de estrategia y diversión, donde las y los participantes mostrarán sus habilidades en estos apasionantes torneos. ¡Una oportunidad perfecta para disfrutar, competir y compartir momentos inolvidables!

## 50ª edición de la Semana Coral Vizcaína

Urepel Abesbatza se sumará a la 50ª edición de la Semana Coral Vizcaína que tiene lugar anualmente en la Basílica de Begoña. Su actuación, dirigida por Irma Rutkauskaite-Egiluz, está programada para el 29 de enero de 2024 a las 20:00 horas. ¡Y recordad que desde Urepel Abesbatza aún siguen buscando tenores y bajos!

**Duelo perinatal y Arte**  
KURTZIO KULTUR ETXEA - SOPELAN

22 de enero  
17h00

**DUELO Y POESIA**  
*La belleza y el potencial de dar voz al sufrimiento*  
TALLER DE ARTETERAPIA

DOAN/GRATUITO  
PLAZAS LIMITADAS  
INSCRIPCIONES EN KURTZIO

Urepel Abesbatza Korua

Tenore eta Baxuen bila  
Buscando Tenores y Bajos

ENTSEGUAK:  
ASTELEHENETAN  
19:00-21:00  
KURTZION  
ITXAROTEN ZAITUGU  
TE ESPERAMOS

ENSAYOS:  
LUNES  
19-21 H.  
EN KURTZIO

Tf. 608971673  
urepelkorala@gmail.com



## Hilabeteko komertzioa FRUTERIA ZAPORE NATURALA

**¡Descubre la frescura en cada bocado en la Frutería Zapore Naturala!**

En el corazón de Sopela, te espera un paraíso de sabores



naturales y colores vibrantes. En nuestra frutería, la frescura es nuestra firma: cada manzana, cada racimo de uvas y cada verdura es seleccionada con esmero para llevarte lo mejor de la naturaleza a tu mesa.

¿Buscas la dulzura de las frutas de temporada? ¿O prefieres el crujir de una ensalada llena de vitalidad? En nuestra tienda, encontrarás la frescura que estás buscando. Y no solo eso, nuestro equipo está siempre listo para brindarte recomendaciones, recetas y sonrisas genuinas para hacer de tu visita una experiencia deliciosa.

¿Te preocupan los orígenes? En la Frutería Zapore Naturala, apoyamos a los productores locales, seleccionando lo mejor de la cosecha regional para ofrecerte lo más fresco y cercano. Apostamos por lo auténtico, lo sano y lo delicioso.

Ven a visitarnos y sumérgete en un festival de aromas y colores, un lugar donde cada fruta y cada verdura cuentan una historia de calidad y frescura. ¡Te esperamos para que disfrutes de la mejor selección de la naturaleza en cada visita! Nos encontrarás en la calle Sabino Arana 14 de Sopela.

## Nerea Azkona:

*“Las pérdidas gestacionales, perinatales e incluso neonatales están silenciadas, tabuizadas y, en ocasiones, estigmatizadas tanto por el mundo sanitario como por la sociedad”*

El 22 y 23 de enero, Kurtzio Kultur Etxea se convertirá en el epicentro de unas jornadas trascendentales sobre el Duelo Perinatal. El evento contará con la participación de la escritora sopeloztarra Nerea Azkona, reconocida en el mundo literario como Auri Lizundia. Azkona presentará su reciente y conmovedor libro “Duelo de Madre” además de liderar un taller único e inspirador: “Taller de Ilustración: Exploración Terapéutica a través de la Ilustración y la Escritura”. Una oportunidad única para explorar el duelo perinatal, romper tabúes y encontrar la luz en estos momentos difíciles. ¡No te pierdas esta experiencia transformadora!



### ¿Qué es el duelo perinatal?

El duelo perinatal es el proceso psicológico al que nos tenemos que enfrentar cuando ha habido una muerte perinatal, esto es: cuando muere un bebé al que esperamos durante el embarazo, en el parto u horas o días después de nacer. Como todos los duelos, tiene sus etapas, aunque no se viven una detrás de otra; son un tiovivo de emociones y podemos pasar de la rabia a la pena a través de la negación en un solo minuto.

Lo que diferencia el duelo perinatal del que viene después de otras muertes, es que es un duelo desautorizado, ya que las pérdidas gestacionales, perinatales e incluso neonatales están silenciadas, tabuizadas y, en ocasiones, estigmatizadas tanto por el mundo sanitario como por la sociedad.

**Tu libro “Madre en Duelo” visibiliza una realidad que desgraciadamente viviste en cuatro ocasiones. Una realidad que, como dices, se encuentra silenciada, tabuizada o estigmatizada socialmente. ¿A qué se debe?**

He vivido pérdidas tanto gestacionales como perinatales, que se diferencian en las semanas de gestación, aunque no en el dolor que te producen, porque cuando un embarazo deseado no sigue adelante, no solo se pierde un latido, también se caen todos los sueños, expectativas y planes familiares que le acompañaban.

El hecho de que sea algo que pasa, por desgracia, muy frecuentemente (uno de cada cuatro embarazos no llega a término) no hace que se trate de manera humana y empática. Y estamos hablando de derechos humanos, no de cosas de mujeres. Así que

creo que es una cuestión de trato y atención por parte del ámbito sanitario y desde la sociedad que tenemos que solucionar, sobre todo, hablando de ello y dándole la entidad que merece, no haciendo como si no hubiera pasado nada.

### ¿Qué emociones y sentimientos suelen surgir ante esta situación de pérdida?

Con el dolor tan intenso que es intrínseco a la pérdida llega el silencio y el silenciamiento. Esto es, primero nadie habla del tema, con la excusa de no hacerte daño, cuando es imposible hacer más daño que el que te hace la propia muerte; y segundo hay un momento, cuando la sociedad considera que ha pasado un tiempo prudencial, que te afea si quieres hablar de tu bebé, porque la convención dice que hay que pasar página y olvidar y esta manera de actuar, en vez de ayudar, lo único que ha hecho ha sido patologizar los duelos y no vivirlos, no transitarlos y finalmente no trascenderlos.

### ¿Cuál es el papel del sistema sanitario? ¿Estamos profesional y socialmente sensibilizados con este tema?

El personal sanitario tiene que estar formado en duelo perinatal para poder informar y acompañar a las mujeres y a las familias en situación de duelo. Son momentos de máxima vulnerabilidad en los que hay que tomar multitud de decisiones y para poder hacerlo lo mejor posible hay que mantener la calma, tener toda la información, tiempo, recursos y acompañamiento posible. Y para eso se necesita formación y fondos.

### ¿Qué no debemos decir a una pareja o una

### persona que ha perdido un bebé?

En mis talleres de *Comunicación empática* todo el mundo me pregunta por las palabras mágicas. Ya lo siento, pero no hay ninguna fórmula mágica. La normalización y el acompañamiento en silencio forman parte de esta comunicación. No solo nos incomoda la muerte, también nos incomoda los silencios que la acompañan y en ocasiones los llenamos con frases hechas, refranes o clichés que lejos de reconfortar hieren todavía más. Mejor callar y dar la mano que decir un “eres joven, tendrás otro” o “la naturaleza es sabia”.

### ¿En qué sentido hay que trabajar para romper el tabú que existe en torno al duelo perinatal?

Hay que hablar de ello. Una vez que alguien se atreve, siempre hay otra persona que le sigue, porque pasa en un 25% de ocasiones. Es una barbaridad. Todo el mundo conoce algún caso, así que vamos a comenzar a normalizarlo, a hablar de ello, a reconocerlo y a darle la importancia que requiere para que podamos transitar un duelo sano que nos ayude a seguir adelante.

### ¿Qué se van a encontrar las personas que participen en el taller?

Es una muestra de los talleres de *Ilustración* que llevo a cabo con grupos de Getxo y Bilbao. ¿Qué es la ilustración? En eso consiste; en ir para verlo. Acompaño a las personas en la gestión de sus emociones a través del arte, en este caso la escritura y el dibujo. En Kurtzio vamos a tratar a nuestros monstruos y monstruas y nos iremos con una parte de nuestra propia historia.



**OLENTZERO ETA MARI  
DOMINGIREN ETORRERA 2023!**



# URTARRILA / ENERO

## 1 ASTELEHENA/LUNES

### URTE BARRI

**Haur animazioa**/Animación infantil

**Tokia/Lugar:** Kurtzio Kultur Etxea

**Ordua/Hora:** 13:00

**Sarrera doan**/Entrada gratuita

**Euskaraz**/En euskera

**Nori zuzenduta**/Edades recomendadas: **Publiko**

**guztientzako**/Todos los públicos

## 2 ASTEARTEA/MARTES

### KUTXARTEAN (Cía. Teatro Paraíso)

**Umeentzako antzerkia**/Teatro infantil

**Tokia/Lugar:** Kurtzio Kultur Etxea

**Ordua/Hora:** 18:00

**Sarrera**/Entrada: 4,00 € / 5,00 €

**Euskaraz**/En euskera

**Nori zuzenduta**/Edades recomendadas: **5 urtetik**

**aurrera**/a partir de 5 años

## 4 OSTEGUNA/JUEVES

### MR. BO (Cía. Marie de Jhong)

**Umeentzako antzerkia**/Teatro infantil

**Tokia/Lugar:** Kurtzio Kultur Etxea

**Ordua/Hora:** 18:00

**Sarrera**/Entrada: 4,00 € / 5,00 €

**Euskaraz**/En euskera

**Nori zuzenduta**/Edades recomendadas: **3 urtetik**

**aurrera**/a partir de 3 años

## 5 OSTIRALA/VIERNES

**ERREGE MAGOEN KABALGATA ETA HARRERA**  
/ CABALGATA Y RECIBIMIENTO A LOS REYES  
MAGOS

**Ordua/Hora:** 18:00

**Tokia/Lugar:** Larrabasterratik irten eta harrera

**udaletxeko plazan**/Salida desde Larrabasterra y

recepción en la plaza del ayuntamiento

## 7 IGANDEA/DOMINGO

**GABONETAKO XAKE LEHIAKETA** / TORNEO DE  
NAVIDAD DE AJEDREZ

**Tokia/Lugar:** Urko kirolegia

**Ordua/Hora:** 11:00-15:00

**Izen-emateak**/Inscripciones: 646 760 165

## 7 IGANDEA/DOMINGO

### LOTI EDERRA (Cía. Glu Glu)

**Umeentzako antzerkia**/Teatro infantil

**Tokia/Lugar:** Kurtzio Kultur Etxea

**Ordua/Hora:** 18:00

**Sarrera**/Entrada: 4,00 € / 5,00 €

**Euskaraz**/En euskera

**Nori zuzenduta**/Edades recomendadas: **3 urtetik**

**aurrera**/a partir de 3 años

## 10-31

**MARRAZKETA ETA PINTURA ERAKUSKETA** /  
EXPOSICIÓN DE DIBUJO Y PINTURA

**Antolatzailea**/Organiza: **Marrazketa eta pintura**

**tailerra:** Lagun Artea/Taller de dibujo y pintura:

Lagun Artea

## 11 OSTEGUNA/JUEVES

### BAJO TERAPIA

**Genero ikuspegiko zinema-foruma**/Cine-fórum  
con perspectiva de género

**Tokia/Lugar:** Kurtzio Kultur Etxea

**Ordua/Hora:** 18:00

**Sarrera doan**/Entrada gratuita

**Gaztelaniaz**/En castellano

## 12 OSTIRALA/VIERNES

### TU-TUM, PLATZ! (Cía. Txalo Produkzioak)

**Umerezko bakarrizketa**/Monólogo de humor

**Tokia/Lugar:** Kurtzio Kultur Etxea

**Ordua/Hora:** 20:00

**Sarrera**/Entrada: 6,00 €

**Euskaraz**/En euskera

## 14 IGANDEA/DOMINGO

### MOMIAK

**Zinema familiarra**/Cine familiar

**Tokia/Lugar:** Kurtzio Kultur Etxea

**Ordua/Hora:** 18:00

**Sarrera doan**/Entrada gratuita

**Euskaraz**/En euskera

**Nori zuzenduta**/Edades recomendadas: **Publiko**

**guztientzako**/Todos los públicos

## 19 OSTIRALA/VIERNES

### SÓLO (Cía. Roi Borrallas)

**Keinu-antzerkia, objektuen manipulazioa eta**

**clown**/Teatro de objetos, manipulación y clown

**Tokia/Lugar:** Kurtzio Kultur Etxea

**Ordua/Hora:** 20:00

**Sarrera**/Entrada: 4,00 € / 5,00 €

**Testurik gabe**/Sin texto

**Nori zuzenduta**/Edades recomendadas: **6 urtetik**

**aurrera**/a partir de 6 años

## 22-23

**JAIOTZA INGURUKO DOLUARI BURUZKO**  
**JARDUNALDIAK** / JORNADAS SOBRE EL DUELO  
PERINATAL

**Antolatzailea**/Organizada: **Sopela Zurekin**

## 22 ASTELEHENA/LUNES

**'ILUSTRURA TAILERRA': ILUSTRAZIO ETA**  
**IDAZKETA TERAPEUTIKOA** / TALLER DE  
ILUSTRURA: ILUSTRACIÓN Y ESCRITURA  
TERAPÉUTICA

**Tokia/Lugar:** Kurtzio Kultur Etxea

**Ordua/Hora:** 17:30-18:30

**Izena ematea beharrezkoa**/Inscripción previa

**Gaztelaniaz**/En castellano

**'MADRE EN DUELO' LIBURUAREN AURKEZPENEA**  
/ PRESENTACIÓN DEL LIBRO 'MADRE EN DUELO'

**Tokia/Lugar:** Kurtzio Kultur Etxea

**Ordua/Hora:** 19:00-19:30

**Sarrera doan**/Entrada gratuita

**Gaztelaniaz**/En castellano

**Idazlea**/Escritora: **Auri Lizundia**

## 23 ASTEARTEA/MARTES

**'POESIA ETA DOLUA' ADIERAZPENGUNEA** /  
ESPACIO EXPRESIVO 'POESÍA Y DUELO'

**Tokia/Lugar:** Kurtzio Kultur Etxea

**Ordua/Hora:** 17:00

**Izena ematea beharrezkoa**/Inscripción previa

**Gaztelaniaz**/En castellano

**HITZALDIA: 'JAIOTZA INGURUKO DOLUA**  
**IKUSARAZIZ'** / CHARLA: 'VISIBILIZANDO EL  
DUELO GESTACIONAL, PERINATAL Y NEONATAL'

**Tokia/Lugar:** Kurtzio Kultur Etxea

**Ordua/Hora:** 18:00

**Sarrera doan**/Entrada gratuita

**Gaztelaniaz**/En castellano

**Hizlariak**/Ponentes: **ESKU HUTSIK (Euskadi eta**  
**Nafarroako haurdunaldi, jaiotza inguru eta**  
**jaioberrientzako dolu Elkarte** / Asociación de  
duelo gestacional, perinatal y neonatal de Euskadi  
y Navarra)

## 25 OSTEGUNA/JUEVES

### HOLY SPIDER

**Genero ikuspegiko zinema-foruma**/Cine-fórum  
con perspectiva de género

**Tokia/Lugar:** Kurtzio Kultur Etxea

**Ordua/Hora:** 18:00

**Sarrera doan**/Entrada gratuita

**Gaztelaniaz**/En castellano

## 26 OSTIRALA/VIERNES

**HASTA QUE LA MUERTE NOS SEPARE (Cía.**  
**Inconstantes Teatro)**

**Helduentzako antzerkia**/Teatro para personas  
adultas

**Tokia/Lugar:** Kurtzio Kultur Etxea

**Ordua/Hora:** 20:00

**Sarrera**/Entrada: 6,00 €

**Gaztelaniaz**/En castellano